



IRUDITAN

Bidaia nostalgikoa, panpinen eskutik

Artziniegako Santxotena tailer museoak *Despertar de una nostalgia* panpinen erakusketa inauguratu du apirilaren 5ean, eta uztailaren 14ra arte bisitatu ahal izango da. Hirugarren edizio honetan munduko 1.200 panpina baino gehiago ikusi ahalko dira, XIX. mendearen amaieratik gaur egun arte. Teresa Lafragua museoko zuzendaria eta erakusketaren komisarioak azaldu duenez, berritasunen artean Italiako eta Frantziako panpinak daude, 1970eko hamarkadako Jesmarren ama panpinak edo 1950eko hamarkadako lau panpina militar bitxi. **Argazkiak: PHOT.OK. ■■■**



Bidali zure argazkiak testu labur
batekin: erredakzioa@alea.eus